



Zangoza / 2021

KULTUR AGENDA

martxoa



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA
SANGÜESA
PALACIO DE LA CULTURA
VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

Kultura-zerbitzuko Arreta Ordutegia: Astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoko Ordutegia: Asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta Jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalara Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es.

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu eta datuak babesteko legea www.sanguesa.es web-orrian kontsultatu.

 www.facebook.com/culturasanguesa

 www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: martxoaren 2tik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez.

Tfnoa: 948 870 251

Salmenta txartel-leihatilan antzeppen egunetan: Karmengo Entzunaretoako txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), 18:00etatik 18:30era helduen saioetarako eta 17:00etatik 17:30era haur eta sendienetarako.

Tfnoa: 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua 4koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskikunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izanen da.



Beharapenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharapenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretora sartzean.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA



Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzen ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonia erabiltzen dutenek ez ezik ongi

entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren. Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora.

Covid19 dela kausa, Zangozako Udalak Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean eta Karmengo Entzunaretoan beharrezko neurriak ezarri ditu. Kontsulta ditzakezu www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web guneetan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.



- | | | | |
|----|----|---|----------|
| 1 | Al | | |
| 2 | As | | |
| 3 | Az | | |
| 4 | Og | Erakusketa "Cuadernos viajeros".
Variopintas taldearekin topaketa | 4. Orr. |
| 5 | Os | | |
| 6 | La | Emakumearen Eguna. Zinea. "La boda de rosa" | 9. Orr. |
| 7 | Ig | | |
| 8 | Al | Emakumearen Eguna ospatzea | 12. Orr. |
| 9 | As | Emakumearen Eguna. Antzerkia.
"Ahora me toca a mí" | 10. Orr. |
| 10 | Az | Ipuin kontalaria gaztelaniaz.
"Cuentos pasados por agua" | 8. Orr. |
| | | Kontzertua. Musika Eskolako ikasleak | 12. Orr. |
| 11 | Og | Emakumearen Eguna. Liburu aurkezpena
"Erronkari Ibaxako ainarariak" | 11. Orr. |
| 12 | Os | | |
| 13 | La | Antzerkia. "Descansa en paz" | 5. Orr. |
| 14 | Ig | | |
| 15 | Al | | |
| 16 | As | | |
| 17 | Az | Ipuin kontalaria euskaraz. "Mikel liburujaile" | 8. Orr. |
| 18 | Og | Musika. Nafarroako Orkestra Sinfonikoa | 6. Orr. |
| 19 | Os | | |
| 20 | La | Txotxongiloak eta objektuen antzerkia. "Golulá" | 7. Orr. |
| 21 | Ig | Erakusketaren amaiera "Cuadernos viajeros" | 4. Orr. |
| 22 | Al | IV. 2.0 Ager Vasconum Literatura Lehiaketa
(apirilaren 30a bitarte) | 12. Orr. |
| | | Kontzertua. Musika Eskolako ikasleak | 12. Orr. |
| 23 | As | | |
| 24 | Az | Ipuin kontalaria ingelesez. "Two of everything" | 8. Orr. |
| 25 | Og | Erakusketa "Nafarroa Ezagutu XIII Argazki-Lehiaketa"
(apirilaren 11 bitarte) | 5. Orr. |
| 26 | Os | | |
| 27 | La | | |
| 28 | Ig | | |
| 29 | Al | | |
| 30 | As | | |
| 31 | Az | | |

Erakusketak



“CUADERNOS VIAJEROS”

Variopintas taldearen proiektua

MARTXOAREN 4TIK 21ERA

Variopintas deitzen du bere burua lagun-talde honek. Taldekideek prestakuntza eta ogibide ezberdinak dituzte, halere, sormena partekatzen dute, nahiz eta modu ezberdinetan garatu, nola ez. Ehun-arte edo paper-ebaketa, ilustrazioa, poesia, pintura eta diseinua dira haien sormen-alderdia garatzen duten esparruetan. *“Cuadernos viajeros”* erakusketak, beraz, koadernoak trukatzearen emaitza jasotzen dute. Koaderno horietan, sortzaile horietako bakoitzak gai bat eta baldintza batzuk proposatu ditu elkarlaneko zortzi pieza egiteko. **Variopintas** zortzi emakume dira: Gabriela Barrio, Mila García, Rebecca Gil, Itziar Goñi, Idoia Iribertegui, Leire Olkatz, Concha Pasamar eta Berta Suescun.



VARIOPINTAS TALDEAREKIN TOPAKETA

MARTXOAK 4, OSTEGUNA

Ordua: 19:00 h.

Doako sarrera edukiera bete artean.

Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 2na sarrera hartu ahal izanen dira. Gonbidapenak martxoaren 2tik aurrera jaso ahal izanen dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefonora deituz edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidean. Ekitaldia behin hasita, edukiera ez bada bete, aretoan sartu ahal izanen da.


Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuak.

Erakusketa Aretoko bisita-ordutegia:

asteartik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara

Erakusketak



NAFARROA EZAGUTU XIII. ARGAZKI-LEHIAKETA. 2020KO FINALISTAK

MARTXOAREN 25ETIK APIRILAREN 11RA

Conocer Navarra aldizkariak bere argazki-lehiaketaren 30 irudi finalistak aurkezten ditu.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Antolatzaileak: Conocer Navarra eta Diario de Navarra.

Babeslea: Eroski.

Laguntzaileak: Camera, Reyno Gourmet eta Nafarroako Kanpinen Elkarte

Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoa



ANTZERKIA

“Descansa en paz”

TXALO PRODUCCIONES

LARUNBATEAN, MARTXOAK 13

Zuzendaria: Begoña Bilbao.

Antzerkilariak: Mikel Laskurain eta Ane Gabarain.

Bere bikote bizitza monotonoarekin amaitzeko, Andreak, zirt edo zart, Gizona pozointzea erabaki du. Handikeriarekin jarraitzeko, egin duena aitortu dio, eta azken orduak emanen ditu berarekin, giltzaz itxitako pisu batean. Baina, jakina, ez da deus gertatuko aurreikusi bezala.

Komedia eldarniotsua eta ustekabeko birez betea. Deabruzko bikote dibertigarri bat. Bere akatsengatik, bere ahuleziengatik, bere baldarkeriengatik nabarmentzen diren bi pertsonaia, aldi berean dibertigarriak eta maitagarriak, orain inoiz baino gaurkotasun handiagoa duten bi aktorek interpretatuak, “Patria” telesailan egindako interpretazio bikainen ondoren: Miren eta Joxian, Joxe Mariren gurasoak.

Ikusleak: Gazteak eta heduek

Iraupena: 80 minutu

Ordua: 19:00

Lekua: Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkarte eta Nafarroako Gobernua



Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



MUSIKA

NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA

OSTEGUNEAN, MARTXOAK 18

Sinfonikoa Nafarroan zikloaren kontzertua, errepertorio klasikoa zabaltzea helburu duena.

Kontzertino-zuzendaria: Yorrick Troman.

EGITARAUA

Josef Suk (1874 - 1935)

Serenade en Mi bemol Mayor op.6

I. Andante con moto

II. Allegro ma non troppo e grazioso

III. Adagio

IV. Allegro giocoso, ma non troppo presto

George Gershwin (1898 - 1937)

Lullaby

Johann Sebastian Bach (1685 - 1750)

Suite n. 3 en Re Mayor BWV 1068: II. Air

Karl Jenkins (1944 -)

Palladio

I. Allegretto

II. Largo

III. Vivace

Ikusleak: Gazteak eta heduak.

Iraupena: 60 minutu.

Ordua: 19:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Aldez aurreko salmenta: 8 €.

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Baluarte Fundazioa-Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta Nafarroako Gobernua.

Arte eszenikoak

Carmengo entzunaretoan



TXOTXONGILOAK ETA OBJEKTUEN ANTZERKIA

"Golulá"

GALITTOON

LARUNBATEAN, MARTXOAK 20

Zuzendaria: Chisco Casteleiro Fraga.

Interpretatzaileak: Lucía Aibar, Chisco Casteleiro, Juanma Picazo, Ruben Mira.

Lurreko, itsasoko eta aireko abenturen istorio zoragarria. "Golulá" teknika mistoko lan bat da, non aktore-antzerkia, body puppets (formatu handiko txotxongiloak), muppets eta argi beltzeko antzerkia (paletako txotxongiloak) nahasten diren, istorio bat sortzeko, zeinaren egitura, trama eta erritmoa abenturazko ipuin klasikoarenak diren.

- Haurrentzako ikuskizun onenaren saria Gaztela eta Leongo X. Antzerki Azokan (Ciudad Rodrigo).

- Haurrek hobekien baloratutako ikuskizuna IX. Domingo do Principal edizioan (Pontevedra).

- Epaimahaiaren saria Ribadaviako (Ourense) XXIV.MITen.

- 2016ko Gabonetan Del Prado Museo Nazionalean burutako ikuskizun bakarra.

Ikusleak: 4 urtetik gorako haurrak eta sendiak.

Iraupena: 55 minutu.

Ordua: 18:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Aldez aurreko sarrerak: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.



Ipuin-kontalaria



“Cuentos pasados por agua”

EVA AZPILIKUETA (Gaztelaniaz).

ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 10

Chispi kapitaina eta Pong bere laguntzailea espazio-misio berezi batekin heldu dira Lurrera: guztiok gehiago eta hobeki birziklatzea lortuko duten laguntzaileak bilatzea, baita ura aurrezte ere eta gure inpaktua zaintzea. Ez! Meteorito batena ez! Ingurumenekoa!

“Mikel liburujale”

LUR USABIAGA (Euskaraz).

ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 17

Egun batean Mikelek liburu bat jan du nahigabeen. Handik aurrera munduko umerik bereziena dela pentsatuz, abentura ugari biziko ditu.

“Two of everything”

HANNAH BERRY (Ingeleseaz).

ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 24

Haktak jauna eta andrea oso pobreak ziren eltze magiko bat aurkitu zuten arte, non euro bat jarritz gero bi agertzen diren. Jarri saltxitxa bat eta... bi saltxitxa! Eltze magikoari esker, aberastu egin ziren eta betiko zoriontsu bizi izan ziren! Edo agian ez?

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Iraupena: 60 minutu gutxi gorabehera.

Ordua: 18:30.

Doako sarrera edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera pertsonako eta saioko. Sarrerak ez daude zenbakituta. Ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapena erakutsi beharko duzu sartu ahal izateko. Ekitaldia behin hasita, ezin izanen da sartu. Gonbidapenak **martxoaren 2tik aurrera** Kultura-etxean hartu ahal izanen dira, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidera. Atea Ipuin kontalaria hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



Emakumearen Nazioarteko Eguna



EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA OSPAZTEKO EKITALDIAK

Zangozan hainbat ekitaldi prestatu dira martxoan emakumeen presentzia nabarmantzeko.

ERAKUSKETA

“Cuadernos de Viaje”

Variopintas deitzen du bere burua laguntalde honek. Taldekideek prestakuntza eta ogibide ezberdinak dituzte, halere, sormena partekatzen dute, nahiz eta modu ezberdinetan garatu, nola ez. Ehun-artearen edo paper-ebaketa, ilustrazioa, poesia, pintura eta diseinua dira haien sormen-alderdia garatzen duten esparruetan.

MARTXOAREN 4TIK 21ERA

(Argibide gehiago 4. orrialdean)



ZINEA

“La boda de rosa”

Zuzendaria: Iciar Bollain.

LARUNBATEAN, MARTXOAK 6

45 urte betetzear dagoelarik, Rosak beti besteentzat bizi izan dela konturatuko da, eta alde egin, dena utzi eta botoi nuklearra sakatzea erabakiko du. Bere bizitzaren agintea hartu eta negozio propioa izateko ametsa bete nahi du. Baina sarri jakinen du bere aitak, anaiek eta alabak beste asmo batzuk dituztela, eta bizitza aldatzea ez dela hain erraza familiaren gidoian ez badago.

Ikusleak: Gazteak eta heduak.

Iraupena: 100 minutu.

Ordua: 19:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerak: 3 €.

Emakumearen Nazioarteko Eguna



ANTZERKIA

"Ahora me toca a mí"

ILUNA PRODUCCIONES

ASTEARTEAN, MARTXOAK 9

Zuzendaria: Miguel Goikoetxandía.

Antzerkilariak: Ana Berrade eta David Larrea.

María Elena, Espainian bi urte daramatzen etorkina, protagonista duen antzezlan laburra da "Ahora me toca a mí". María Elenak Francisco zaintzen lan egiten du, iktus bat jasan duen eta mugitu eta hitz egin ezin duen agure bat. Elkarrizketa hunkigarri eta bizi batean, protagonistak gure herrian izandako esperientziak kontatuko dizkio Franciscori. Genero-indarkeria, migrazioa, prostituzioa eta elkartasuna, aukera hori ez dutenei ahotsa ematen saiatzen den pieza batean. Orain emakume hauen txanda da.

Ikusleak: Gazteak eta heduek.

Iraupena: 35 minutu.

Ordua: 19:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Doako sarrera edukiera bete arte.

Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 2na sarrera.

Gonbidapenak **martxoaren 2tik aurrera** hartu ahal izanen dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidera. Atea saioa hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Emakumearen Nazioarteko Eguna



HITZALDI ETA LIBURU AURKEZPENA “Erronkari Ibaxako ainarariak”

MARTXOAK 11, OSTEGUNEAN

Espartinak egiten zituzten, baina meritua ez zegoen horretan. Soldata bat zeukaten oso emakume gutxi zutenean, baina horretan ere ez zegoen meriturik. Urtero, urriaren 7an ateratzen ziren herritik, euria edo elurra gorabehera; oinez, gaztetasunez beterik, hatiltxo bat eskuan zutela, barruan neguan bizirauteko beharrezkoa zenarekin; ibaxan zehar eta bortua igoz, arriskuez gainezka zeuden basoak eta sakanak zeharkatzen zituzten, Pirinioak gurutzatzen alde batetik bestera; den-dena Mauleko espartin-fabriketan lanean negua pasatzeko. Udaberrian itzultzen ziren eta batzuk hotzak jota hil ziren bidean, ia neskatoak, eta, hala eta guztiz ere, sozialki ez zeuden ongi ikusita. Hori guztia izan zen bere meritua. Isilak eta isilduak. Hemen salbatzen dugu ainararien memoria, luxuzko emakumeak, gaur egun Pirinioen nortasuna eta harrotasuna direnak; liburu honetako orrialdeak esker on, errekonozimendu eta omenaldi bihurtzen dira.

Hizlaria: Fernando Hualde, ikerlaria eta idazlea.

Ordua: 19:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeako Hitzaldi Aretoa.

Doako sarrera edukiera bete arte.

Gonbidapenak aldezturik hartu behar dira.

Gehienez ere, 2na sarrera. Gonbidapenak

martxoaren 2tik aurrera hartu ahal izanen

dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera,

12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik

21:00etara, 948 870 251 telefono zenbakira

deituta edo emailaz infocultura@sanguesa.es

helbidera. Atea saioa hasi baino 15 minutu

lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin.

Antolatzaileak: Zangozako Udalaren Gizarte Gaietako Zinegotzigoia eta Kultura Zinegotzikoa.

Emakumearen Nazioarteko Eguna



MARTXOAK 8, ASTELEHENA

“Emakume liderrak: Etorkizun berdinzailearen alde Covid-19ren munduan”

Aurten, osasun-egoera dela eta, ohiko kontzentrazioaren ordez, hausnarketa kolektibo bat egingo dugu Zangozako eta eskualdeko emakumeek gure gizartearen eraikuntzan duten paperari buruz, haien lana ezagutzeari buruz eta lan hori aitortzeari buruz, hiriko emakume-izena duten karrika bakanetan adibide gisa adierazia: erreginak, emakume musikariak, idazleak, zientzialariak, boluntarioak, kirolariak.

Deitzaile eta antolatzailea: Zangozako Udalaren Gizarte Gaietako Zinegotzigoa.

Laguntzaileak: Zangozako Etxekoandreen Elkartea, “Luis Gil” Ikastetxe Publikoa, Leire Mendia BHI, Zangozako Ikastola, Zangozako Gurutze Gorria, Cederna Garalur-Zangozaldea/Nafar Lansare eta Sorginak Talde Feminista.

Literatura Lehiaketa

“IV. 2.0 Ager Vasconum”



Tafalla, Erriberri, Lizarra, Zangoza eta Lodosako Udalek eta Irantzuko Mankomunitateak antolaturiko lehiaketa.

12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta.


Aurkezteko epea: martxoaren 22tik apirilaren 30era.

Oinarriak: www.sanguesa.es martxoaren 8tik aitzina.

Argibideak: Tafallako Euskara Zerbitzuan.

Musika Eskola

“Juan Francés de Iribarren”



“JUAN FRANCÉS DE IRIBARREN” MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN KONTZERTUAK

MARTXOAK 10, ASTEAZKENA ETA 22, ASTELEHENA

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.